

PROMETEO

SARRERA:

GuIrakurgaien ekiñaldi bat, oraingo onetan kondairak gai dirala asten dogu. 46 kondaira izango dira.

Baiña zer da kondaira?

Berba au Larramendi'k asmatua dala diño, eta sinistekoa da, idazle ospetsu au itzak asmatzen zalea zalako.

Esangura bardin-antzekoa dauken iru itz ipiñi doguz alkarren parean, bat aukeratzeko. Oneik dira: Edestia, ipuiña ta kondaira.

Zein ete da iruretatik egokiena erderazko "leyenda" euskeraz adierazteko?

Ez edestia, au jazokizunak adierazteko erabilten da, erderazko "historia".

Ez ipuiña, onek balioko leuke leiendak adierazteko, baiña ez orretarako bakarrik, beste ipuin-mota asko dagoz-eta.

Orduan kondaira artzen dogu, leienda euskeraz esateko.

Zer da kondaira?

Aberrien asieran agertzen diran notiñak eta euren eginkizunak agertzen dauzan kontakizuna. Jazokizun orreik beti ez dira jazorikoak edo edestiak, baiña geienak sustraian egi aundiak eukiten dabez.

Aberrienak dirala esan dogu, ez laterrienak, baiña aberririk geienak alkartu eta laterri biurtzen dira, bakarrik edo beste batzukaz, eta orduan kondairak be laterri orren izenean agertzen dira. Grazia edo Erroma esaterako.

Euskaldunak ba-daukagu kondairarik?

Bai eta ez gitxi, esaterako Aitor, edo Asier edo gabon-illenia, edo San Juan sua...

Ekiñaldi onetan ba, 46 kondaira agertuko doguz mundu zabaleko aberri askotatik artuta... Bakoitxaren azpian ipiñiko dogu beti zein aberritatik artuak dira.

1.- Prometeo eta sua (Erroma'koa)

Jainkoak ardura aundiz eskutatzen eutsezan gizonai euren isilpekoak. Orrelan auken Olinpo-mendian ondo gerdeta sua. Gizakiak ez ekien sua zer zan.

Zeus jainko nagusia bildur zan isilpeko ori gizakien eskuetara eldu eta aurrerapen aundiak egingo ete ebezan. Arroto egingo ziran gizonak!



Baiña ba-egozan bigarren maillako jainko txiki batzuk be, Zeus edo Jupiter baiño apalagoak. Onein artean bat Prometeo zan.

Prometeo onek gizakiak makal ikusten ebazan eta errukitu egin jaken eta Zeus aundiari gizakientzat sua eskatu eutson. Baiña onek gogor erantzun eutson ezetz.

Orduan Prometeo'k berak irakatsi eutsen gizakiai suaz zelan baliatu, baita sutegian burdiñea ateraten, tresnak egiten, lanabesak (atxurra, aizkorea, geziak, ezpatak, eta beste gauza asko) egiten.

Asarre bizia izan zan benetan, Zeus'ena gizakiak sua eukela jakin ebanean eta asarre ori biziagotu egin zan Prometeo'k emon eutsela jakin ebanean.

Arduraz ebillan Zeus, Prometeo zelan zigortu pentsatzen.

Baiña ez eban lortu Prometeo zelan zigortu pentsatzen.

Baiña ez eban lortu Prometeo zigortzea eta mandatari indartsu bi bialdu eutsozan Prometeori, au menperatzeko aginduaz, bere anai Epesto'gaz batera. Iru oneik mendperatu eben Prometeo eta Kaukaso-mendiko arkaitz sendo baten lotu eben kate sendo bategaz.

Sai edo putre (buitre) zar bat etorri jakon eta onek barrua dana jan eutson.

Baiña Prometeo'k oraindiño bizirik irauten eban eta urrengo goizerako barru barria sortu jakon. Barriro etorri jakon saia eta barriro barrua jan... Orrelan jarraitu eban Prometeo'k urteetan arkaitz aren gaiñean, baiña ez eban burua makurtu, ez eutson parkamenik eskatu Zeus edo Jupiter jainkoa aundiari.

OLAZAR'tar Martin'ek